

B

BARREN

TOKIKOM



Areto futbola herrira

konfiantzan IKASTOLA
 HH 0-1ean
 irailan eta urrian hasteko
 matrikula zabalik
 maiatzaren 14tik 31ra

elgoibar ikastola

Ordutegi zabala :
 7:30 - 19:30
 Jai zubietan eta oporretan
 irekita

ENJOY SUMMER

Jolastuz eta gozatuz
 ikasi ingelesa, alemana eta frantsesa
ELGOIBARREN

ILS

Industry Language Services

Informazioa, matrikula eta ordutegiak

943 744 040

www.ils.es

IMHn gaude




5 urtetik aurrera, ekainaren 25etik uztailaren 27ra eta
 ekainaren 25etik uztailaren 13ra bitartean, 10:00etatik 13:00etara.
 Modu naturalean ikasi, aire librean, jokoan, abestien, ipuinen eta eskulanen bitartez

2012/2013 IKASTURTERAKO MATRIKULA IREKIA

HAURRAK ETA GAZTEAK – INGELESA, FRANTSESA ETA ALEMANA
 HAURRAK 4 urtetik aurrera GAZTEAK 12 urtetik aurrera

Hizkuntzan erabat barneratzekoak, %100 ingelesez, frantsesez edo alemanez.
 Cambridge azterketen prestakuntza: KET, PET eta FIRST CERTIFICATE



Noemi Otegi

Atletico Madrilek partidu garrantzitsu bat irabazi omen zuen, eta ospakizunetan sekulako iskanbilak izan ziren

Madriken; zaurituak, atxilotuak eta kalteak edonon. Benetan burua galdu dugulakoan nago, azkenaldian futboleko ospakizun guztietan iskanbilak sortzen direlako, kantuak egon beharko luke ten lekuan, eta Polizia eta anbulantzien sirena hotsak entzutea normala omen da. Gero eta gutxiago gustatzen zait talde ospetsuen futbola, gizonezkoen talde ospetsuena alegia, emakumezkoak futbolean dabilten edo ez, inork ez omen daki! Horren, ordez, gero eta gogokoagoak ditut telebistan gutxiago agertzen diren kirolak, gure herrietako gazte asko elkartzen dituzten kirolak. Ez dira ia inoiz telebistan irteten, baina sentimendu positibo gehiago sortzen dute, sanoagoak dira. Zoriontzekoa da, esaterako, Elgoibarren Sanlo eskubaloi taldeak sortzen duen giro paregabea, edo Ordizian Errugby-ko Ampo taldearen inguruan sortutako ufada.



Ainara Sedano

Buff, egia esan behar badizut gai beroa ikutu duzu. Ni kokoteraino nago lehen mailako futbolaz. Egunetik egunera gehiago gorrotatzen dut, eta gorrotatzen dut jarraitzaile askok euren taldea beste ezeren gainetik defendatzea; defendagarriak ez diren kasuetan ere bai.

Dena baimentzen zaie inongo azalpenik eman gabe; zorrak barkatu, dirua eman eta eman (emaitzak onak badira eta txarrak badira berdin), lurrak eta eraikinak bereziki eta esklusiboki-ko eurentzat eraiki... Aldiz, beti entzun diet zaleei futbolak dirua dakarrela; zalegoa beste hiri batzuetara mugitzean horrek diru asko lagatzen duela doazen toki horietan, baina... benetan uste al duzue eragiten duten diru mugimendua kontsumitzen dutena baino handiago dela?

“Okerrena da telebistakoa dela gure txiki guztien ametsa”

Ez dut daturik eta ez naiz bila hasiko, baina ezetz esango nuke! Eta herrietako talde txikietan, ordea... zoriontzeko modukoak zarte parte hartzen duzuen guztiok. Zuen seme-alabak eta haien lagunak alde batetik bestera autoz asteburuero eramaten dituzuenok Gipuzkoako urrutiko herrietara partidu eskastxoak ikusteko; ezeren truke umeak entrenatzen dituzuenok edo eta kamisetak erosteko dirua ateratzeko tortilak sukaldatzen dituzuenok!

Hor bai laguntzeko grina eta kiroltasuna. Ez telebistan erakusten digutena. Eta okerrena da telebistakoa dela gure txiki guztien ametsa.

“Gero eta gogokoagoak ditut

telebistan gutxiago agertzen diren kirolak”

Hainbat pertsona ezberdin ilusio berdin baten inguruan batzeko gaitasuna dute, modu herrikoi batean, alaitasunez eta laguntasunez; kiroltasunez, azken finean. *Mens sana in corpore sano*, aintzinatik datorkigu esana, baina lehen zatia ahaztua dago telebistan etengabe agertzen diren kirol horietan, eta bigarrena batek daki, gorputza ere sano-sanoa ote duten!



elgoibar ikastola
1980-2012

www.elgoibarikastola.eu

Elgoibar Ikastolaren Eguna: ekainak 9

50. URTEURRENEKO festaren bazkarirako txartelak salgai:

- Txartelak erosteko epea luzatu dugu maiatzaren 25 arte
- Non erosi: Ttanttakan / Suan / Ikastolako bulegoan / Bankoan
- Menuak 10€ nagusientzat/7€ umeentzat (xehetasunak webean)

Oraingo eta lehengo ikasle-irakasle-gurase eta Elgoibartarrentzat, anima zaitzete!

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com


BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



GUTUNAK



BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko

Morkaiko Mendizale Elkarteak eskerrak eman nahi dizkizue Morkaikoren Egunagatik. Eskerrik asko parte hartzaile guztiei. Eskerrak batez ere Lanbroa-Usuari eta Altzolako Uraki, egarria asetzearen. Baserritar guztiei, bereziki Irunabe eta Otsourtia etxekoei. Elgoibarko Parrokia. Bihar-Dana, Karakate, Konporta eta Kalamua elkartei; Nettori, Eroskiri, Bollarri eta Frupi frutadendei; Sahatzu, Patxi, Iraola, Armueta, Ziarda eta Landa harategiei; Julio Buenori eta Ibartxiki ardoaki, Dori urdaitegiari eta Idarragari beraien produktuak emateagatik. Jai Alai, Iturri, Ttantaka, Sigma, Orbea, Ametsa, Gabi eta Mahats tabernei. Eizagirre okindegiari. Jabier Etxeberria, Sabin Txurruka, Valentin Txurruka eta Jaime Martinezi. Jose Ignacio Jauregi, Jose Ignacio Laskurain, Inasio Garmendia, Mari Juli Conde, Iñaki Barria, eta Angel Mari Garateri, haurren ibilbideaz eta bazkari arduratzeagatik. Sahatzuri, bazkari ederragatik. Maider Lete, Patricia Navo, Virginia Santamarta, Alberto Fernandez, Imanol Larrañaga, Maite Ordax, Mikel Gabilondori. Arkaitz Irureta, Jon Ulibarri, Jon Peli, Asier Arzamendi eta Ainhoa Mendibili, jasotzen laguntzearen. Atxutxia- maikakoei: Mikel Etxaniz, Andrea Ibarluzea, Zuriñe Konde, Ane Elorza, Danele Sarrigarte eta Naiara Martin. Aitor Zabalari (DV) eta Asier Orbea (BARREN). Zigor Diezi. Udaleko brigadari. Udal Kirol Patronatuari, Elgoibarko Udalarai, Debemeni. Kutxari. Eta aipamen berezia Pako Iriondori. Inor ahaztu badugu, barkatu. Eskerrik asko bihotzez.

Morkaiko Mendizale Elkarteak

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENez edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzak argitaratuko.



Konposta egiteko edukiontzi marroi-
ra bestelako zaborra ere botatzen
du jendeak: "Santa Klara auzoan

konposta egiteko edukiontzi marroia ja-
rri digute, eta joan den astean sekulako amorrua
hartu nuen zaborra botatzera joan nintzanean.
Edukiontzia zabaldu eta mota guztietako zaborra
ikusi nuen barruan. Plastikozko zein kristalezko
ontziak zeuden barruan, eta benetan haserretu
nintzen. Erabiltzaileok giltza daukagu, eta kon-
posta egitea borondatezkoa da, beraz, nahita
egin zutela iruditzen zait".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarakoizarra.com 943 744 112



Elgoibar Ikastola-
ren 50. urteurre-
neko antolatzaile-
ek eskerrak eman
nahi dizkiete kirolari buruzko
mahai-inguruan parte hartu zu-
ten kirolariet: Igor Elizburu, Iñigo
Lariz, Markel Bergara, Unai
Arrieta, Ainhoa Lendinez,
Evelyn Santos eta Egoitz Mora
euren bizipenak eta esperien-
tziak kontatzeaz gain, jarri zu-
ten giroa oso atsegina izan zen.



Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta

IMHn, herrian bertan eta mundura begira...



DBH
Ondoren?
**ERDI MAILAKO
HEZIKETA ZIKLOA**

ikasi, eta gero lanera edo goi maila ikasten jarraitu...

BATXILERGOA
amaitzean?
**GOI MAILAKO
HEZIKETA ZIKLOA**

aukera berria:
alternantzia
Fabrikazioan eta Muntaian!

... goi-mailako
**Heziketa Zikloaren
ondoren egiteko**
Pentsatutako **INGENIARITZA:**
**Txandakako
Ingeniaritza
alternantzia**

Erdi-maila

- Mekanizazioa
- Mantenu Elektromekanikoa

Goi-maila (D eredu)

- Fabrikazio mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika industrial*

AURTEN Gradu berria!

Prozesu eta Produktu Berrikuntzaren Ingeniaritza (bideratzen)

Informazio saioa: maiatzaren 26an, 11:00etan
etortzeko deitu 943744132ra edo apunta zaituz www.imh.es orrian

“Berradiskidetze kultura sortzeko, denori dagokigu zerbait egitea”



**JONAN
FERNANDEZ**

BAKETIK FUNDAZIOKO ZUZENDARIA

Elgoibarko Udalak elkarbizitza eta berradiskidetze kultura sustatzeko programa abiatu du Lokarri eta Baketik fundazioekin elkarlanean. Martitzenean aurkeztu zuen programa Alfredo Etxeberria alkateak, Lokarriko Aitziber Blancok eta Arantzazu Baketikeko zuzendari Jonan Fernandezek lagunduta. Atzo, berriz, programa horri buruzko hitzaldia ematekoa zuen Jonan Fernandezek (Tolosa, 1962) udaletxeko pleno aretoan. Aurkezpenak eginda, bakeari eta bizikidetzari buruzko agiria adostea izango da hurrengo lana, eta gero, bigarren fase batean, formazio ikastaroak antolatuko dituzte, konponbiderako urratsak elkarrekin egiteko.

ETAk indarkeria armatua uzten zuela iragarri zuenean aro berri bat hasi zela esanez hasi duzu aurkezpena, eta orain, berradiskidetze kultura sustatzea dela zuen helburu nagusia. Zein dira orain egiteko nagusiak?

Egiteko nagusiak hiru dira, eta Elgoibarren martxan jarri dugun programa hau egiteko horietako bati lotuta dago. Egiteko nagusiak hauek dira: indarkeriaren bukaera egiaztatzea, arazo politikoei konponbidea ematea eta berradiskidetzea edo bizikidetzak kultura sortzea. Hala ere, hiru horiek ezberdintzea garrantzitsua da, bestela gauzak nahasteko arriskua dago. Gure lana hirugarren horren barruan ulertu behar da. Horren hari-
ra esan behar da garbi izan behar dugula berradiskidetzea erronka handia dela eta oso mantso joan behar dugula, hobe delako mantso, baina pauso sendoak emanaz aurrera egitea, azkar eta zalantzati joatea baino.

“Inor ezin dugu autokritika egitera edo barkamena eskatzera behartu”

Erronka handia jarri duzue. Bizikidetzak kultura hori sortzeko, zein da eman beharreko lehenengo pausoa?

Lehenengo ideiak adostu behar dira, gero jarraitu behar dira eta ondoren urratsak egin. Hori dena, baina, partekatua izan behar da. Orain, lehenengo fase hori hasiko dugu, ideiak adosteko fasea. Eta berradiskidetzeko ideia batzuk adosteko, plangintza xume bat prestatu dugu Elgoibarrerako.

Zelan adiskidetzen da herri bat horrenbeste itxi gabeko zauri daudenean?

Presarik gabe hartu behar da. Hau hamar hamabi urterako lana da. Hiru galderentzako erantzunak bilatu behar ditugu lehenengo eta behin: zer gertatu da eta zer ondorio ateratzen dugu hortik? zeintzuk lehentasun markatuko ditugu? eta zer egingo dugu, berriro hau gerta ez dadin? Hiru galdera horiei erantzun partekatu bat ematen badiegu lortu dugu. Ekintza xume asko egin behar dira. Helburua zehaztuta daukagu eta baita helbu-

ru hori lortzeko irizpideak ere: ezberdinen arteko errespetua eta giza eskubideen errespetua sustatzea, gertatu denaren memoria kritikoa egitea eta biktimei elkartasuna adieraztea, bizikidetzari dagozkion lengoia, jarraitu eta erabakiak humanizatzea eta gizarte oinarri etikoetan eta demokratikoetan hezteak.

Memoria historikoa ezinbestekoa da aurrera egiteko. Oroimena bera selektiboa da, baina, eta posible da nork berea oroituta ondorio partekatu horretara iristea?

Ekintza objektiboak zerrendatzean datza memoria historikoa egitea, eta ekintza objektibo horiek zeintzuk dira? bada, giza eskubideen urraketak. Memoria selektiboa da, bai, baina giza eskubideen urraketak egon badira, ezin dugu ez ikusiarena egin, eta horiek albo batera utzi. Urraketa guztiak hartu behar dira kontuan: ETAK egindakoak, Poliziak egindakoak... Hortik abiatuta, bigarren puntua zera da: onartu behar dugu nork bere interpretazioa egingo duela gertatu den horri buruz. Baina, behin hori onartuta, errazago izango dugu jarritako erronka lortzea; alegia, ondorio bat konpartitzea. Nahiz eta nork bere irakurketa politikoa egin, ondorio bateratu bat atera behar dugu.

Biktimen egitekoaz ere asko hitz egin da. Biktimei hitza ematea oso garrantzitsua dela esan duzue, baina bigarren maila batean jarri dituzue zuen programan. Bakea lortzeko bidean traba izan daitezkeelako, akaso?

Biktimak berradiskidetze prozesuaren helburu izan behar dira. Biktimei elkartasuna adierazi behar zaie, ordain bat eman behar zaie eta euren biktima izatera aitortu. Hori da helburu nagusia, baina iruditzen zait ez diegula onik egiten protagonista bihurtuta. Gizarteari dagokigu erreparazio lan hori egitea. Biktimak sortuko dugun kultura berri horren onuradun izan behar dira.

Bakea lortzeko bidean zeintzuk balore lehenetsi behar ditugu?

Ez dakit zehazki baloreak diren, baina guk esaten dugu lau direla gure puntu kardinalak: mugatuak gairela onartzea. Hau da, onartzea inoiz ez dugula arrazoi osoa; aukerak identifikatzeko gaitasuna dugula jakitea; kontzientzia izatea kontzientzia zerbaiteko daukagula eta hori, kontzientzia etiko hori, erabili egin behar dela; eta giza duintasuna dela beti goi mailako balorea, eta, ondorioz, lehenetsi beharrekoa.

Gaitzespen eta barkamen berrek tirabira bat baino gehiago eragin dute politikan. Zenbaiten ustez ezinbestekoa da barkamena eskatzea, aurrera egiteko. Zure ustez, zer da derrigorrezkoa eta zer komenigarria?

Berradiskidetze prozesu batean bi gauza daude derrigorrezkoak eta beste bi komenigarriak. Ezinbestekoa da gertatu denaren azterketa kritiko bat egitea, eta egindako mina edo kaltea aitortzea. Eta badaude beste bi komenigarriak direnak: autokritika egitea eta barkamena eskatzea. Azken horiek oso garrantzitsuak dira, baina inor ezin dugu autokritika egitera edo barkamena eskatzera behartu, behartutako barkamen eskea ez delako benetakoa.

Indarkeriaren azkenak zelakoa izan behar du?

Nik uste dut bi erronka daudela: ETAREN deklarazioa egiaztatzea eta giza eskubide guztiak betetzen direla bermatzea. Lehenengoa bidea egiten ari gara, baina bestean, garbi dago oraindik giza eskubide asko urratzen direla: Parot doktrina, presoek kartzelatan bizi duten egoera, tortura... Egiteko asko daukagu, baina bide onetik goaz. Kontuan izan behar dugu zazpi hilabete eskas pasatu direla ETAK borroka armatua uzten zuela iragarri zuenetik eta konponbideak denbora eskatzen duela. Denok nahi dugu azkarrago egitea, baina baikorrak izan behar gara.

“Egiteko asko daukagu, baina bide onetik goaz. Baikorrak izan behar gara”

Atzo aurkeztu zenuten Elgoibarren bizikidetzak sustatzeko 2012rako programa. Formazio ikastaroak eta foroak antolatu dituzue. Zer eskatzen diezu ikastaro horietan parte hartuko duten elgoibartarrei?

Ahalegin bat egitea ulertzeko zer konplexua den bizikidetzak partekatu bat izatea, eta kontuan hartzea denon dagokiola zerbaitegitea.

Presoen eskubideen alde, Elgoibarko Kalebarren plaza jendez bete nahi du Goazen Plazara ekimenak bihar

Egungo kartzela politikak ez duela sostengu politiko eta sozialik salatu dute

Presoen eskubideak errespeta ditzatela exijitzeko Kalebarren plaza (Kultur Etxe aurrea) jendez bete nahi du bihar, hilaren 19an, Herrirak Goazen Plazara ekimenean. 13:00etarako egin dute deialdia, eta batzen diren guztiek argazki handi bat aterako dute gero elkarrekin. Presoen eta iheslarien etxeratzea ahalbidetzeko asmoz sortu zuten Herrira herri mugimendua, eta Elgoibarren dagoeneko jaso du hainbat elkarte, gizarte eragile eta norbanakoren atxikimendua: Uxue Alberdi eta Mikel Olaizola bertsolariak, Mausitxa, AEK, K104 musika taldea, Haritz dantza taldea, Taupada antzerki taldea, Gazte Asanblada, ezker abertzalea, EA, Aralar, eta LAB, EHNE eta STEE-EILAS sindikatuak

Urtarrilaren 7an *Kolosala izango da* lelopean Bilbon presoen alde egin zuten manifestazio jendetsuaren ondoren, sortutako mugimendua da; “Herrira gehiengo zabal baten nahia antolatzeraz dator, nahi hau mobilizazio bihurtzera”, dio Herrira mugimendua aurkezteko argitaratu duten idatziak. Bilboko manifestazioak presoen gaia eztabaida poli-

tikoaren erdigunean jartzeko balio izan zuela nabarmendu dute, eta bide batez, “gizartearen konpromisoaren erakusle” izan zela. Bilboko argazki hark “bidea” erakusteko balio izan zuela esan dute, eta, orain, preso eta iheslariak herriratzeko eginahalean ahalik eta indar gehien batzea nahi dute, gatazka betiko konpondu eta gatazkaren ondorio guztiei irtenbidea emateko ezinbestekoa ikusten dutelako presoak etxeratzea.

Eskaera nagusiak

1. Euskal presoak Euskal Herrira ekartzeta.
2. Espainian ezartzen den 197/06 doktrina bertan behera uztea, eta zigorra bete duten presoak askatzea.
3. Frantzian ezartzen den bizi osorako zigorra bertan behera uztea, baldintzapeko askatasunari bide emanez.
4. Zigorren 2/3 eta 3/4 beteak dituzten presoak kaleratzea.
5. Gaixotasun larriak dituzten presoak askatzea, eta bestelako gaixotasunak dituzten presoak egoki zaintzeko beharrezko



neurriak hartzea. Presoen osasun eskubidea bermatzea.

6. Frantziako eta Espainiako gobernuak darabilten espetxe politika egokitzea, “hasi den aro berrian gatazka konpontzeko bidean modu positiboan eragiteko”.

IMH eta Mekako ikasleak saritu dituzte EuskoSkills lehiaketan



Lanbide Heziketako EuskoSkills lehiaketa jokatu zen eguenetik zapatura Irungo Ficoba aretoan, eta IMHko eta Meka ikastetxeetako ikasleek ondo prestatuta daudela erakutsi zuten beste behin ere. Guztira, 19 espezialitateko 130 ikaslek parte hartu zuten lehiaketan, norik bere espezialitate-

an. Hala, CNC tornuan, esate baterako, Iñaki Hernandez IMHko ikasleak urrezko domina lortu zuen, eta bere ikaskide Aritz Telleriak zilarrezkoa. CAD Diseinu mekanikoan, bestalde, hirugarren egin zuen Ismael Fernandez IMHko ikasleak.

Mekako ikasleak ere fin aritu ziren oso. Auto margoketa espezialitatean, Josu Etxeberria gailendu zen, Jon Jairo ikaskidearen aurretik. Jon Casales, beriz, hirugarren sailkatu zen autoen teknologia sailean.

Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko ikaslerik onenak hautatzeko balio izan zuten Irungo kanporaketak, eta sail bakoitzeko irabazleak SpainSkills lehiaketarako sailkatu ziren. SpainSkillsen Espainiako herrietako ikaslerik onenekin batera lehiatuko dira gure ordezkariak, eta kanporaketa hori irabaziz gero, EuroSkillserako sailkatuko dira. Pausoz pauso aurrera egiten dutenek, Lanbide Heziketaren munduko txapelketa jokatu dute: Worldskills lehiaketa.

Lekua **Mendaroko ospitala**



Kirofanoak berritzeko obrak hasiko dituzte laster Mendaroko ospitalean, eta hori dela eta, uda nahiz uda osterako aurreikusitako ebakuntzak maiatzera eta ekainera aurreratzen ari dira. Ospitaleko zuzendari Eduardo Gonzalezek jakinarazi duenez, obrek hiru hilabete inguru iraungo dute, uztailetik irailera, eta tarte horretan sortu daitezkeen eragozpenak direla eta, pazientzia eskatu die erabiltzaileei. “Obrak hoberako izango dira, eta ondo bidean, abendurako kirofano berri guztiak martxan izango dira”, esan du. Iaz, 4.762 ebakuntza egin zituzten Mendaron, eta 30.226 larrialdi artatu zituzten. Bestalde, 602 ume jaio ziren iaz.

Berbia **Gure Balioak sariak**

Gure Balioak sarirako hautagaiak aurkezteko epea zabaldu du Debegesa garapen agentziak. Debabarreneko eskualdean gizarte-balioen arloan egindako lanagatik eredugarri den pertsona edo erakundea saritzeko sortu zuen sari hau Debegesa garapen agentziak. Sarietara eskualdeko edozein gizarte-agentek aurkeztu ahal izango du, baina hautagaiak honako baldintza hauek bete beharko dituzte: Debabarrenean jaioa izatea edota bertan bizi edo lan ibilbidea hemen garatu izana, bere balioengatik aipatzekoa den jardunbidea izatea eta eskualdearekin lotura sendoa izatea. Hautagaitzak ekainaren 13rako aurkeztu behar dira. Argibideetarako: www.gurebalioak.com.

Irudia **Garagardo feria**



Hirugarren urtez jarraian, garagardo feria egin zuten asteburuan Elgoibarren, Atabal Danborrada Batzordeak antolatuta. Ostiraletik domekara, sei garagardo mota dastatzeko aukera izan da Madalan, eta baita saltxitxak, txerri ukondoak eta oilaskoa jateko ere. Balorazio ekonomikoa egiteko goizegi bada ere, feriatan bueltan sortu den giroaren harira balorazio oso positiboa egin dute antolatzaileek. “Jendetza handia ibili da, giro oso ona egon da, eta, gainera, ez da inolako haserririk egon”, adierazi du Juan Carlos Arrieta Atabal elkartereko kideak.

Ermuaranbide kalekoek auzotarren bazkaria antolatu dute

Orain bost urteko bazkariak izan zuten arrakasta ikusita, auzotarren beste bazkari bat antolatzea erabaki dute Ermuaranbidekoek. Oraindik ez dute zehaztu non izango den bazkaria ezta nola ordaindu beharko den ere, baina interesatuta egon daitezkeen zerrenda osatzeko, orri bana jarri dute Ermuaranbideko atarietan, jendeak maiatzaren 30a aurretik izena eman dezan. Bazkariak gain, erretratu zaharren erakusketa ere egin nahi dute, eta horretarako auzotarren laguntza eskatu dute. Argazkiak laga nahiz bazkaritarako izena eman nahi duenak Basarte Elkartean izango du horretarako aukera, astelehenetan, 19:00etatik 20:00etara (Gerardo Otero). Informazio gehiagorako Gloria Bollar, Javier Garcia, Gerardo Otero edota Andoni Segundorena jo behar da.

Martxan da EuskalNatura.net, natura eta natur zientzien gaineko webgune berria

EuskalNatura.net webgunea “modernoa, erabilterrezagoa eta partehartzaileagoa” egin dute. Albistek, erreportajeak, espezieen eta naturguneen informazio-fitxak, argazkiak, eta esteka eta liburu interesgarriak topa ditzakegu webgunean, besteak beste. Antton Alberdi da webgunearen arduraduna, baina beste hiru elgoibartarrek ere parte hartzen dute: Eñaut Izagirrek, Ander Izagirrek eta Haritz Arrietak. EuskalNatura webgune berritan lau blog daude, horietatik hiru elgoibartarrenak. (Informazio gehiago: <http://www.euskalnatura.net/ueu-natur-zientziak/euskalnatura-proiektua>).

‘Euskal hitz sakonak’ izenburuko hitzaldia, Elgoibarren, ekainaren 1ean

Urbiziak antolatuta, *Euskal hitz sakonak* izenburuko hitzaldia eskainiko du Leire Zaituak ekainaren 1ean, Elgoibarko Kultur Etxean. 19:00etan hasiko da hitzaldia.



ANGEL MARI ARREGI CANO

*Enarekin bat eginez
azken hegaldia egin dok,
eurak bezala abiadura
eta bidaia maitatuz,
guk hirekin bat egingo juagu
euren ezinezko
hegaldiak begiratzuz.*



2012ko maiatzaren 11n hil zen

Koadrilako lagunak



ANGEL MARI ARREGI CANO

Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan



ESKERTZA

ANGEL MARI ARREGI CANO

2012ko maiatzaren 11n hil zen, 51 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

SABINO ARRIOLA ANSOTEGI

2011ko maiatzaren 15ean hil zen, 77 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, maiatzak 19,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



ESKERTZA

LUCIA GABILONDO ELCORO-IRIBE

2012ko maiatzaren 13an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



‘Bateragune auzian’ zigortutakoak libre lagatzeko eskatu zuten ehunka lagunek zapatuan, Elgoibarren

Gorenaren epaia “bake prozesuaren kontrako ostikada” izan dela salatu zuten Barrenak

Bateragune auzian Espainiako Auzitegi Gorenak emandako epaia “zentsuga-bea” dela salatu eta auzipetuak libre lagatzeko exijitu zuten Otegiren aldeko herri plataformak zapatuako deitutako manifestaziora batu zirenek. 17:00ak pasa zirela abiatu zen manifestazioa Kalegoen plazatik, *Auzipetuak askatu!* eta *Prozesuaren aurkako erasorik ez. Konponbide garaia da* lelopean. Manifestazio buruan, eta Arnaldo Otegiren preso zenbakia zeraman pankartari eusten, Arnaldo askatu, politika askatu plataformako kideak, eta ondoan, pankarta nagusiaren atzean, Gernikako Akordioa izenpetu zuten alderdi politikoetako ordezkariak. (Argazki gehiago eta bideoak www.elgoiBARREN.net webgunean).

Eta atzetik, jende oldea; tartean, jende ezagun ugari: ezker abertzaleko Fernando Barrena, Joseba Permach, Joseba Alvarez, Maribi Ugarteburu, Rufi Etxeberria eta Jone Goirizelaia; Amaiurreko Rafa Larreina, Maite Aristegi, Iñaki Antiguedad eta Alberto Unamunzaga; Aralarreko Rebeka Ubera eta Ainhoa Beola; Alternatibako Ander Rodriguez, Jon Peli Uriguen Gipuzkoako Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoarako diputatua, eta Mertxe Aizpurua Gara egunkariko zuzendari ohi eta Usurbilgo alkatea, besteak beste. Manifestazio buruan ziren, era berean, Arnaldo Otegiren senideak eta gertukoak ere.

Hasitako leku berean bukatu zen manifestazioa, Kalegoen plazan, frontoiko ezker hormatik zintzilik zuten Arnaldo Otegiren argazki handi baten azpian. Bukaerako ekitaldian, Otegiren aldeko plataformako Iñaki Odriozolak eskerrak eman zien han bildutakoiei, eta ondoren, Fernando Barrenak eta Otegiren aldeko herri ekimeneko ordezkari Asier Zengotitak hartu zuten hitza. *Bateragune auziko* epaia “bakearen kontrako ostikada” izan zela salatu zuten Barrenak. “Ezker abertzalearen estrategia politikoari eta herri honen bake eta justizia nahiaren kontrako probokazio zuzena izan da”, esan zuten. Gorenaren erabakiaren atzean ezker abertzaleari min egiteko nahia dagoela adierazi zuten, eta mezu garbia bidali zuten “asmo horrekin dabilitzanei”: “Denbora galtzen ari zarete”.



Jendetza handia batu zen zapatuan ‘Bateragune auziko’ epaia salatzen manifestazioan.



Arg.: Aitor

‘Bateragune auzian’ zigortutakoak berehala aske lagatzeko eskatzeko idatzia onartu zuten barixakuan Elgoibarko Udaleko Bozeramaileen Batzordeak (EAJko bi ordezkariak aldeko bozkatu zuten, PPkoak kontra, PSE-EEkoa abstenitu egin zen, eta Bildukoak ez zuten bozketan parte hartu. Idatziak hala dio hitzez hitz: “Estatu espainiarra, beste behin ere, Euskal Herrian ireki den fase politiko berriaren aurkako norabidean urratsak ematen jarraitzen du. Aukerak ireki eta bide berrietan sakondu ordez, oztupoak jartzen jarraitzen du”. Zigortutako bost lagunak politika egiteagatik atxilotu zituztela jaso zuten idatzian, eta epaia erabaki politikoa izan dela salatu.

GEHITU

ARETO FUTBOLERA

CD Debarrena klubak areto futbola gizarteratu nahi du herri-tarren artean, eta horretarako, Gehituz jaialdia antolatu du as-tebururako. Areto futbola ezagutzera emateaz gain, klubaren aurrekontuari aurre egiteko dirua bildu nahi dute. Gaur hasi eta domekara bitartean, areto futbola izango da Madalako karpan protagonista.



Ainhoa Andonegi

Areto futbolak hartuko du asteburu honetan Madalako parkea. CD Debarrena areto futbol klubak egitarau zabala antolatu du gaurtik hasi eta domekara arte, Gehituz jaialdiaren barruan. 240 lagunentzako lekua prestatu dute, eta ez da janik eta eda-nik faltako.

Bi helburu dauzka jaialdiak: batetik, helburu soziala. CD Debarrena klubak 25 urte egingo ditu datorren denboraldian, eta herritarren arte-an zabaldu nahi dute. Herritarrak gehitu nahi dituzte klubera; jokatzera, laguntzera edota partidak ikustera. Bigarren helburua ekonomikoa da. CD Debarrenak 160.000 euroko aurrekontua dauka, eta helburu ho-ri aurre egiteko dirua bildu nahi dute asteburuko jaialdian.

25 urte, 260 bazkide eta mila lagun. Horiek dira CD Debarrenaren zenbaki garrantzitsuenak. Datorren denboraldian izango da klubaren 25. urteurrena, eta urte horietan zehar mila lagun inguru ibili dira areto futbolaren bueltan. Elgoibarren sortu zen kluba, baina gaur egun es-kualde ikuspegia dauka. Elgoibarren, Eibarren eta Ermuan jokutzen di-tuzte partidak klubeko taldeek, eta 25. urteurrenari begira hiru herri ho-rietan antolatuko dituzte ekintzak. Baina hori irailetik aurrera izango da. Gehituz egitasmoaren lehenengo jaia gaur hasiko da, Madalan. Adin eta gustu guztietako herritarren tamainarako egitaraua prestatu dute, areto futboleant denek daukatelako lekua. Herriko elkarte eta eragileen laguntzarekin, musika eta kirola uztartu dituzte egitarauan. Ez dute inor kanpoan laga nahi, eta herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte are-to futbolera. Jose Ramon Iriartek eskerrak eman dizkie egitaraua pres-tatzen lagundu dieten guztiei, eta parte hartuko duten guztiei, musu-truk jardungo dutelako lanean. Era berean, Danborradaren batzordeko kideek emandako aholkuak oso garrantzitsuak izan direla nabarmen-du du.

Denboraldi borobila

lazko denboraldi bikainaren ostean, 2B nazional mailara igo zen Concepto Egile, CD Debarrena klubeko talde nagusia. Mailari eus-teko helburuarekin ekin zioten irailean aurtengo denboraldiari, eta hel-burua ondo baino hobeto bete dutela adierazi du Jose Ramon Iriarte klubeko presidentek.

**25 urte, 260 bazkide eta mila
lagun inguru ditu
CD Debarrenak**



Arg.: Jairo Berbel



Jose Ramon Iriarte
CD Debarrenako presidentea

“Punta-puntako ekitaldiak prestatu ditugu astebururako”

Zer dago Gehituz kanpainaren atzean?

Gehituz edo gehitzen esango genuke. Gure ustez, areto futbolarekin Elgoibarko herriari aukerak gehitzen ari gara. Ekintzak gehitzen dizkiogu Elgoibarko eskaintzari. Ahalegina egiten dugu behintzat, Elgoibarko herriari aukera gehiago emateko.

Gehituz jaialdira gerturatzeko denak zer aurkituko du?

Punta-puntako ekitaldiak prestatu ditugu astebururako. Musika guztia zuzenean izango da, eta primerako artistak ekarriko ditugu. Lan handia egin dugu, benetan. Baina oso gustura geratu gara egitarauarekin eta jai bikaina izango delakoan gaudela.

Zer lortu nahi duzue Gehituz jaialdi honekin?

Batetik, areto futbola herritarren artean sustraitzea nahi dugu. 25 urte asko dira, eta dagoeneko herrian ezagunak gara, baina jendea guregana hurbiltzea nahi dugu. Modu asko daude areto futbolarekin kolaboratzeko, eta denak dira onak. Semea jokatzen hasi arte itxaron beharrik ez dago areto futbolera hurbildu eta laguntzeko. Horrekin batera, dirua biltzeko helburua ere badauka ekimenak. Aurten 160.000 euroko aurrekontua izan dugu, eta datorren urterako gutxienez hori berdintzea nahi dugu. Jaialdirako sarrera doan da, eta jarri ditugun prezioak ere ez dira garestiak, beraz, badakigu diru asko ez dugula irabaziko, baina etortzen direnak ondo hartuko ditugu.

Zeintzuk dira egitarauaren nabarmenduko zenituzkeen ekintzak?

Ekintza guztiak oso onak dira, eta egitaraua oso ondo antolatuta dago, baina badira, nire ustez, jendea aho zabalik utziko dituen hainbat ekitaldi. Eibarko koru gaz-

tea ETBko *Oh happy day* saioko irabazlea izan zen, eta ikuskizun bikaina eskainiko dute. Servi DJa ere oso ezaguna da Elgoibarren, bera izan zelako Pelouse eta Guasseko DJa urte askoan. Garai hartako musika guztia gordeta dauka, eta urte haiek ekarriko ditu gogora. Pozik hartu du gure gonbitea! Gainera, zapatu gauean, tabernari izan diren jokalariek arituko dira barran lanean, gintonic profesionalak prestatzen. Marka guztietako ginebrak egongo dira aukeran, eta profesionalki prestatuko dituzte, gainera.

Umeek eta areto futboleko beteranoek ere izango dute lekua...

Bai. Zapatu arratsaldean umeak izango dira protagonista, eta Gaztelekuaren laguntzarekin haietako ekintzak egongo dira. Domekan, aldiz, beteranoen txanda izango da. 25 urteotan mila lagun inguru pasatu dira CD Debarrena klubetik, eta ezin genituen horiek kanpoan laga.

Denboraldia bukatu da. Zein balorazio egiten duzue?

Oso pozik gaude. Concepto Egile taldearekin Bigarren B mailari eustea zen gure helburua, eta seigarren egin dugu. Azken unera arte, gainera, laugarren postua lortzeko aukera izan dugu, beraz, ondo baino hobeto bete dugu helburua. Bigarren taldea, berriz, bosgarren lekuan geratu da, laugarrenarekin berdinduta. Gol kopuruagatik ez dute jokatu Euskal Ligara igotzeko kanporaketa. Jubenilek ere bosgarren egin dute, eta kadeteak bederatzigarren. Oro har, denboraldi oso ona egin dugu. Jokalari oso onak ditugu, eta entrenatzaile taldea ere sekulakoa da. Datorren denboraldirako taldea prestatzen dihardugu orain, eta zaila izango den arren, aurtengo mailari eusten ahaleginduko gara.

GEHITUZ JAIA

Maiatzak 18, barixakua

19:00 Jaiaren hasiera. Dorleta Fernandezek aurrekoa dantzatuko du. Joana Rodriguezek eta Elorri Irustak lagunduko diote, biolontxeloarekin eta bibolinarekin.

19:15 Erromeria, Inazio Bereziartua musika eskolako trikitilarekin.

22:45 Eibarko koru gaztea.

23:45 Zuhaitz Gurrutxagaren kontzertua.

01:00 Ion Cid DJaren emanaldia

Maiatzak 19, zapatua

10:30 Xake lehiaketa.

12:00 Areto futbolaren aldeko diru bilketa.

14:30 Herri bazkaria.

16:00 Toke txapelketa.

17:00 Ume eta gazteentzako ekintzak Elgoibarko Gaztelekuaren laguntzarekin.

20:00 Txapeldunen Ligako partida, pantaila handian.

00:00 Servi DJaren emanaldia.

Maiatzak 20, domeka

10:30 Areto futboleko beteranoen partidak, Olaizaga kiroldegian.

14:30 Areto futboleko beteranoen bazkaria.

16:30 Mus eta futbolin txapelketa.



Laino artean, mendiz mendi

Morkaiko Eguna antolatu du bigarren urtez Morkaiko mendi elkarteak, eta aurten ere 400 bat lagunek hartu dute parte. Mendi itzuliak, itzulitxoak eta finalista egunak bat egin zuten zapatuan, eta giro ezinhobean ospatu zuten mendizaletasunaren festa. Goizean goiz irten ziren Kalegoen plazatik mendi itzuliko partaideak, eta apur bat beranduago abiatu ziren etxeko txikiak gurasoekin, itzulitxoa egitera. Bazkalostean, bestalde, finalista eguneko dominak banatu zituen Pako Iriondok. Eguraldi lainotsua egin zuen arren, irudi politak utzi zituen egunak. **Argazki gehiago eta bideoa www.elgoiBARREN.net webgunean.**





Gaur hasi eta domekara bitartean jokatuko du Alcortak Lehen Nazional mailara igotzeko kanporaketa

Zaleen babesa eskatu dute Sanloko arduradunek

Lehen Nazional mailara igotzeko bigarren aukera izango du Alcortak eskubaloia taldeak asteburu honetan, Olaizaga kiroldegian. Lehen kanporaketako sei talde onenek jokatuko dute bigarren fase honetan. Hiruko taldeko bi multzo egin dituzte, eta multzo bakoitzeko irabazlea igoko da mailaz. Elgoibarko taldeak BM Leganes eta Catedra 70 taldeak izango ditu aurrez aurre. Cesar Arriola Sanloko presidentek esandakorearen arabera, ez dakite bi talde horiek nolako maila daukaten, eta, beraz, garrantzitsuena Alcortak ondo jokatzeko izango da bere ustez.

Zaleen babesa

Gaur hasiko da kanporaketa, eta domekan amaituko da. Hiru egunez, beraz,



goi mailako eskubaloiaz gozatzeko aukera izango dute elgoibartarrek Olaizaga kiroldegian. Sanloko zaleen beharra nabarmendu du, eta kiroldegira joateko

deia egin die. Denboraldi osoan zehar babes handia eskaini diete herritarrek, eta klubeko presidentearen iritziz, lehen mailako zaleak ditu Sanloko.

Hogei lagunek hartu dute parte 60 urtetik gorakoentzako kirol saioetan



Kirol patronatuak eta Ongizate Sailak 60 urtetik gorakoentzako bi saio antolatu berri dituzte, eta hogei lagunek hartu dute parte. Mintxetako aparkalekuan dagoen gimnasioetan egin dituzte jarduerak, eta besteak beste, beroketa ariketak nola egin behar diren, bihotz taupadak neurtzen eta ariketaren intentsitatea nola kontrolatu daitkeen erakutsi diete partaideei. Antolatzailerak pozik azaldu dira bi jarduerak horiek izan duten harrerarekin, eta aurrerantzean saio gehiago antolatzeko asmoa dutela esan dute.

Atxutxiatxintxika krosa antolatu dute domekarako

Elgoibarko Izarrako Atxutxiatxintxika krosa antolatu du domekarako, HH2tik LH2ra arteko umeentzat. Korrikaldia hasi aurretik, lasterketarako jantziak prestatuko dituzte, eta ondoren, beroketa saioa egingo dute. 11:30ean hasiko da lasterketa Kalegoen plazan, eta San Bartolome eta Errosario kaleetan zehar egin beharko dute korrika.

Urpekaritzan batailoa egingo dute ekainaren 2an

Ur Bizi kirol taldeak antolatuta, urpekaritzan barneratzeko batailoa egingo dute ekainaren 2an. Olaizaga kiroldegiko igerilekuan izango da, eta 14 urtetik gorako edonork hartu dezake parte. Izena emateko ondorengo telefono zenbakira deitu behar da: 607 530 467. 9:30ean hasiko da batailoa.

Kopa txapelketa irabazi du CD Elgoibarko emakumezkoen taldeak

Urola taldeari 1-0 irabazi zioten azken partidari

Berdinketa lortzearekin nahikoa bazuten ere, Urola taldeari 1-0 irabazi zion CD Elgoibarko emakumezkoen taldeak zapa-tuan, eta garaipen horrekin Kopa txapelketa irabazi dute. Urduritasuna izan zen nagusi partida hasi aurretik, eta tentsio handiz jokatu zuten. Bigarren zatia erdialdera iritsi zen gola. Nagore Luechese buruz jo zuen Jone Iriondok ateratako kornerra eta sare barrura bidali zuen baloia. Hainbat urteren ostean, berriz osatu zuten emakumezkoen taldea aurtengo denboraldirako eta lehen hilabeteak gogorrak izan baziren ere, denboraldiko bigarren zatia "borobila" egin dutela adierazi du Oihana Chico entrenatzaileak.



Elgoibarko eta Mendaroko hainbat lagunek hartu dute parte Izarraizko mendi lasterketan

Joan den igandean jokatu zuten Azpeitiko mendietan Izarraizko mendi lasterketa. 21,2 kilometroko ibilbidean Xoxote, Kakuta eta Erlo mendiak igo zituzten partaideek. Tartean, Elgoibartik eta Mendarotik joandako hainbat lasterkari izan ziren:

- 16. Jon Larrañaga: 2:18
- 44. Iñaki Etxabe: 2:31
- 50. Ion Revert: 2:33
- 51. Igor Rey: 2:33
- 66. Mikel Aizpitarte: 2:38



Argazkian Jon Larrañaga

Elgoibarko judo taldeko gaztetxoak onenen artean sailkatu dira Gipuzkoako txapelketan



Maiatzaren 6an jokatu zen Hernanin alebini Gipuzkoako judo txapelketa, eta Elgoibarko Egokran judo kirol klubekoek brontzezko bi domina eskuratu zituzten. Olaia Garcia-Abad, Sarai Sanchez eta Ainhize Uribesalgok parte hartu zuten Elgoibartik, eta aurreneko biak, Olaia eta Sarai, hirugarren sailkatu ziren nor bere mailan. Lehenengo aldia zen Egokran judo klubekoak Gipuzkoako txapelketan lehiatzen zirela, eta pozik itzuli ziren txapelketatik.

EMAITZAK

FUTBOLA

Zamudio 1 – Haundi 1 (3. maila)
Elgoibar 0 – Aloña Mendi 2 (Erreg.)
Elgoibar 8 – Ikasberri 1 (Jub.)
Elgoibar 3 – Allerru 1 (Kad. A)
Anaitasuna 0 – Elgoibar 3 (Ohorezko jub.)
Urnieta 2 – Elgoibar 0 (Inf. txiki)
Amaiak Bat-Mutriku 6 – Elgoibar 3 (Aleb.)
Elgoibar 1 – Urola 0 (Neskak)

ESKU PILOTA

Udaberri Txapelketa

Lagunak 17 – Bergara 22 (Nag.)
Lagunak 22 – Azkoitia 8 (Nag.)
Lagunak 20 – Eibar 22 (Jub.)
Lagunak 22 – Eibar 13 (Jub.)
Bergara 4 – Lagunak 22 (Nag.)
Eskoriatza 22 – Lagunak 9 (Nag.)
Goierrri 22 – Lagunak 10 (Jub.)
Lagunak 18 – Zumaia 0 (Jub.)

ARETO FUTBOLA

San Patricio 3 – King Kong Elg. 9 (Jub.)

ESKUBALOA

Ikus Elg. 21 – Ereintza 22 (Inf. nesk.)
Aloña Mendi 21 – Tecnifuelle 29 (Sen. nesk.)
IMH Elg. 26 – Zarautz 15 (Kad. nesk.)
Grupo Eibar Elg. 24 – Eibar 25 (Kad. mut.)
Astigarraga Elg. 25 – Leizaran 5 (Kad. nesk.)
Txarriduna Elg. 33 – Urola 19 (Inf. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 19
12:00 Elgoibar – Real Union (Ohorezko inf.)
Domeka, 20
10:00 Elgoibar – Soraluze (Aleb.)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Igoera fasea
Barxakua, 18
19:30 BM Leganes – Alcorta (Sen.mt.)
Zapatua, 19
19:30 Catedra 70 – BM Leganes (Sen.mt.)
Domeka, 20
12:00 Alcorta Elg. – Catedra 70 (Sen. mut.)
Igoera fasea
10:45 IMH Elg. – Eibar (Kad. nesk.)
12:15 Tecnifuelle Elg. – Egia (Sen. nesk.)
13:45 IMH Elg. – Ereintza (Kad. nesk.)
16:00 Beristain Elg. – Arrasate (Jub. mut.)
17:30 Pneumax Elg. – Arrasate (Sen. mut.)

ESKU PILOTA

Barxakua, 18
21:15 Lagunak – Zumaia (Jub.)
22:00 Lagunak – Lapke (Nag.)
22:30 Lagunak – Bergara (Nag.)
Domeka, 20
11:30 Lagunak – Arrasate (Inf.)

Datozen bi urteetarako erabaki garrantzitsuenen berri eman zuen Elgoibarko Izarrak bazkideen Batzar Orokorrean

Zuzendaritza Batzorde berria onartu zuen Batzar Orokorrak

Eguztenean egin zuen Elgoibarko Izarra kultur elkarteak bazkideen Batzar Orokorra, eta 90 bazkide inguru batu ziren Kultur Etxeko hitzaldi gelan. 2012-2013. urteak oso garrantzitsuak izango dira Elgoibarko Izarrarentzat, eta bi urte horietan hartu beharreko erabaki garrantzitsuenen berri eman zieten bazkideei. Kultur Elkar-tea ziklo baten amaieran eta etapa berri baten hasieran dagoela azaldu zuen Imanol Larrañaga elkarteko dinamizatzaileak. Datorren urtean 50 urte beteko ditu Elgoibarko Izarrak, eta 2014tik aurrera elkarteak nola funtzionatuko duen erabaki beharko dute bazkideek datorren urtean. Era berean, elkarteko Hedabide Sailaren etorkizunari buruzko informazioa eman zuen Ainhoa Andonegi BARRENEKO koordinatzaileak, eta hark esandakoaren arabera, herritik bailararako jauzia ematea aztertzen ari dira, Debabarreneko gainerako euskara elkarteekin batera. Aisialdiari dagokionean ere, erabaki garrantzitsua hartu behar du elkarteak epe laburrean. Bost urtez kudeatu ditu elkarteak Gaztelekua eta Ludoteka, eta aurrera egin edo ez erabakitzeko unea iritsi da. Udalak lehiaketa publikora atera ditu ekipamenduak, eta jarri dituen baldintzak aztertzen ari dira elkarteko arduradunak, Naiara Martin Aisialdiko zuzendariak azaldu zuenaren arabera.



Horrez gain, elkarteko diru kontuen berri eman zuen Amaia Lasagabaster kudeatzaileak, eta azkenik, Zuzendaritza Batzorde berria onartu zuen Batzar Orokorrak. Bazkide militanteek eta langile profesionalak osatuko dute Zuzendaritza Batzordea: Iñaki Konde (presidentea), Sebas Larrañaga, Lore Laspiur, Urrategi Alzibar, Mikel Olaizola eta Ane Odria izango dira militanteak, eta Imanol Larrañaga, Naiara Martin, Ainhoa Andonegi eta Amaia Arrizabalaga langileak.

Euskaldunon elkarten Gunea Eguna ospatuko dute bihar, Azkoitian

Topaguneak, euskaldunon elkarten federazioak, Gunea Eguna antolatu du biharko, Azkoitian, eta euskaldunon elkarteetako bazkide, militante eta langileak eta Euskal Herri osoko euskaltzaleak gonbidatu ditu. Bi eginkizun nagusi jarri dizkiote Gunea Egunari. Batetik, euskaldunon elkarteetako eragileek elkarren artean ideia eta egitasmo eredugarriak trukatzeko gunea izan nahi luke Azkoitiako hitzorduak. Bestetik, auzolana eta elkarrekiko harremana protagonista izango dituen jai eguna ospatzea. Lehen eginkizuna betetze aldera, euskaldunon elkarteetan martxan dauden 25 egitasmo eredugarri aurkeztuko dituzte. Elkarteetako eragileek beraiek aurkeztutako egitasmoak izango dira, herri edo eskualde jakinetan sortuak eta beste herri batzuetara egokitu eta hedatzeko modukoak. Era berean, euskaldunon elkarteek sortutako materiala ikusgai eta salgai izango da zenbait erakusmahaitan. Jai eguna ospatzeko ere baliatuko da, baina, auzolanean antolatutako biharko Gunea Eguna. 10:30ean Oteiza pilotalekuan egingo den harrera ekitaldiarekin hasiko dute eguna, eta ondoren, 11:00etatik aurrera, 25 proiektuak aurkezteari ekingo diote. Elkarrekin bazkaltzeko batuko dira gero euskaltzaleak, eta bazkalostean jai giroa izango da nagusi herriko gune ezberdinetan. Egitarau osoa www.topagunea.org webgunean daukazue.

Dance&Smile taldeak dantza saioa eskaini du Olatu Talka ekimenaren barruan



Barixakuan hasi eta domekan bukatu zen Olatu Talka, Donostia 2016ko Europako kultur hiriburu dela ospatzeko ekitaldi erraldoia. Kulturak bere baitan izan ditzakeen adierazpide eta espresio mota gehienak elkartu zituen jaialdiak, eta olatu horren aparrak Elgoibarrera ere iritsi ziren zapatuan, Dance&Smile hip hop dantza taldeari esker. Lehenengo eta behin, *Edurne zuri modernoa* emanaldia eskaini zuen Dance&Smile dantza taldeak Kalegoen plazan (Plaza Handia), eta ondoren, 6 eta 10 urte bitarteko smile txikien dantza erakustaldia izan zen. Era berean, Mendaroko Ameikutz musika eskolako ikasleek Donostian egin zen Olatu Talka jaialdian parte hartu zuten. Zehatzago esateko, Gipuzkoa osoko musika eskoletako 800 ikaslek eman zuten kontzertuan parte hartu zuten.

Xabier Erkizia musikari lesakarrak kontzertua eskainiko du domekan, hilaren 20an, Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan

Artelekuko Audiolab soinu laborategiko zuzendaria izan da Erkizia iaz arte

Sinusek antolatuta, kontzertua eskainiko du Xabier Erkizia musikariak (Lesaka, 1975) domekan, Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan. 19:00etan hasiko da kontzertua, eta sarre-rak 3 eurotan jarriko dituzte salgai.

2002. urteaz geroztik musikari emanda bizi da Erkizia. Musika-ren alor asko jorratu ditu, eta nazioarteko musikariekin harremanak estutu ditu. Curriculum oparoa du Erkiziaz: ERTZ bestee musikei eskainitako jaialdiaren (2000-2011) sortzaileetako bat izan da, Artelekuko Audiolab soinu laborategiko zuzendaria (2003-2011), [un]common sounds nazioarteko ikerketa proiektuaren bultzatzailea, Arto artian kolektiboko kidea, Euskadi Irratiko eta *Berria* egunkariako kolaboratzailea, hainbat filmetarako musikaren egile-a, Euskal Herriko soinu-maparen (www.soinumapa.net) sustatzailea... Azken batean, soinu ehiztari nekaezina da. Musikaren mugak hautsi eta soinura iritsi zen. Orain soinuaren mugak zabaltzen ari da. Halaxe aitortu du berak: "Izan zen, ez orain den-bora aunitz, belarriak agintzen zuen garai bat. Ez pantailarik, ez argi itsugaririk, ezta idazteko gailurik ere ez genuenean, entzunez ikasten (eta ikusten) genuen. Entzunez bizi(iraun) izan ginen. Ahozkotasunaren garaia deitu diote jakitunek: ahotsa egiaren ja-



be zen aroa. Baina belarria ahantzi genuen bidean. Eta halako batean, beharbada berandu, konturatu ginen oker geundela. Orduan konturatu ginen entzulerik gabeko ahotsak ez duela oihartzunik. Eta gu, oihartzunez eginak gaudela."

Elgoibarko musika eskolakoak Hamaikasax Egunean izan dira



Elgoibarko musika eskolako saxofoi ikasleek Hamaikasax Egunean, saxofoi jotzaileen topaketan, parte hartu zuten domekan, Mungian. Jai giroa izan zen nagusi, Aitor Nova saxofoi irakasleak jakinarazi duenez. Kalejirak eta herri bazkaria egin zituzten eguerdia bitartean, eta ondoren, arratsaldean, kontzertua eskaini zuten Euskal Herriko hama-bi musika eskoletako ikasleek.

Ikasleen Bertso Jaialdia martitzen eta eguaztenean

Ikasturtean zehar bertsoaren bidez ahozkotasuna lantzen jardun duten Herri Eskolako eta Elgoibar Ikastolako ikasleek eta Institutuko ikasleek bertso jaialdia eskainiko dute datorren martitzen eta eguaztenean Herriko Antzokian. Martitzeneko jaialdian ikastolako 5-6 mailetako eta Herri Eskolako 5. mailako ikasleak arituko dira kantuan, eta eguazteneko saioan, berriz, Herri Eskolako 4. eta Institutuko DBH1eko ikasleak. Saioetan Elgoibarko Bertso Eskolako ikasle-irakasleek ere jardungo dute bertsoan. Sarre-ra doan izango da.

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak sustatu eta Elgoibarko Udalak finantzaturako proiektua da honako hau, eta guztira 247 ikasle ari dira ahozkotasuna eta bertsogintza lantzen ikasturte honetan. Aurtengoa proiektu honen zazpigarren edizioa izan da, eta bertan parte hartzen duten ikasleek, astean, ordubete eskaini diote ahozkotasuna lantzeari. Bertsoa izan dute horretarako bitarteko, eta Iñaki Gurruztuga bertsolaria gidari.

LANA

ESKAERA

- Gizonezkoa lan bila. Eraikuntzan, pintore eta igeltsero lanetan esperientzia. ☎ **677 866 495**
- Emakumea lanerako prest. Etxeko zein garbiketa lanak egiten esperientzia, eta baita umeak zein nagusiak zaintzen ere. ☎ **678 292 120**
- Emakumea orduka lan egiteko prest. Nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan esperientzia. ☎ **636 581 194**
- Emakumea etxeko lanak edo garbiketak egiteko prest. Papelak legez ditut. Orduka edo interna. ☎ **669 956 017 (Ana Maria)**
- Emakumea lan bila. Esperientzia nagusiak zaintzen. Erreferentzia onak eta papela legez ditut. ☎ **620 591 788**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **943 531 378 / 690 925 929**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko, edo tabernan lan egiteko prest. ☎ **659 101 631**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ **634 887 814**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ **650 152 866**
- Emakume arduratsua lan bila. Nagusiak eta umeak zaintzen esperientzia. Erreferentzia onak. Garbiketa lanak egiteko ere prest. Interna edo orduka. Ordu-tegi malgua eta lanerako gogoia. ☎ **633 150 376**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Arratsaldez. ☎ **680 226 039**
- Emakumea nagusiak edo ezinduek zaintzeko prest. Gauez, etxean zein ospitalean. Autoa daukat eta ordu-tegi malgua. ☎ **662 589 611**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Tabernan laguntzeko ere prest nago. ☎ **626 292 587**
- Gizonezkoa lanerako prest. Zerbitzari edo garbiketa lanak, eraikuntzan edo nagusiak zaintzen egingo nuke lan. ☎ **626 292 587**
- DBH 4. mailara arteko klase partikularak ematen ditut. ☎ **676 722 556**

GARAJEAK

- Garajea salgai Urazandin, Anayak eraikinean. ☎ **943 743 251**
- Garaje itxia alokatzen dut erdialdean, Plaza Txiki inguruan. ☎ **688 637 301**

ETXEBIZITZAK

- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **620 664 454**
- Bi logelako pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **678 292 120**
- Etxebizitza alokagai Pedro Muguruzan. Hiru logela, egongela, sukaldea, trastelekua. Eguzkitsua. Lehen solairua. ☎ **659 192 356 / 626 957 477**
- Etxebizitza alokagai Basarte 4, 1ean. Altzariekin. Oso egoera onean. Igogailua dauka. ☎ **943 749 068 / 634 486 339**
- Etxebizitza alokagai San Frantzisko kalean. Logela bakarrekoa. ☎ **660 609 658**
- Etxebizitza alokagai Ubitarten. Bikote batentzat. Bi logela, egongela, sukalde amerikarra. Oso eguzkitsua. ☎ **943 742 442**
- Atikoa alokatzen dut San Frantzisko kalean. Logela bat, komuna, egongela, sukalde-jangela. Dena berria. ☎ **680 707 639**
- Etxea salgai Mendaron, Garagartzan. Zaharra, baina txukuna. Baratza eta txabolarekin. ☎ **943 694 328**

BESTELAKOAK

- Giltz sorta bat galdu dut Plaza Txikitik Kalegoen plazara bitartean. Urrutirako mando bat ere badauka. ☎ **943 470 428**
- Ikeako Strind kristalezko mahai borobila salgai. 301.571.03 erreferentzia. Estreinatuta gabe. ☎ **669 230 205**
- Bizikletan ibiltzeko zapatilak galdu ditut, Pista Beltzean. Aurkitu dituenak, deitu mesedez. ☎ **606 747 756**

LOKALAK

- Ileapaindegia alokatzen dut, oso merke. Arrazoi pertsonalengatik. ☎ **667 806 737**

IBILGAILUAK

- Autokarabana salgai, egoera oso onean. Fiat Ducato, 1994koa. Oso-osoa ekipatua. 5-6 lagunentzako. 15.900 euro. ☎ **671 841 563**



KINTOAK

- 1947an jaiotako elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute ekainaren 9an, Sigma jatetxean. Bolo-tokian aterako dute erretratua, 13:30ean. Interesatuak 60 euro sartu, Euskadolg Kutzako kontu korronte honetan: 3035 0007 24 0071063126. Harremanetarako: ☎ **616 048 946 (Pedro Bergara)**
- 1962an jaiotako mendarorrek kinto bazkaria egingo dute ekainaren 2an. Interesatuak Morroskillo dendan edo ☎ **943 033 631** telefonon eman dezakete izena, hilaren 24a baino lehen.
- 1952an jaio eta aurten 60 urte egingo dituzten elgoibartarrek bazkaria egingo dute ekainaren 16an, Belaustegi jatetxean. Interesatuak 85 euro sartu behar dituzte, Euskadiko Kutzako kontu korronte honetan: **3035 0007 26 0071124362**. Joan-etorria autobusez.



%15

MAIATZA ETA EKAINENKO SUSTAPENA

Friendo Santa Ana 4 eta 6 - Tel.: 943 741 234
Elgoibar (Gipuzkoa)



%5



Eraisgarri tapizatutako kanapea

PACK-NEURRIA	LEHEN	ORAIN
135x190	1371€	779€
150x190	1454€	829€



HR Bisko koltxoia

%5eko deskontua gehitu ahal izango duzu sustapenak dituzten koltxoietan

%15era arteko deskontuak izan ditzakezu zure aurrekontuan!



• Zorionak, **Ibai**, hilaren 20an 3 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki arreba Noraren partez.



• Zorionak, **Naroa**, zure seigarren urtebetetzean. Oso ondo pasatu genuen zure egunean. Muxuak familiakoen partez.



• Zorionak, **Aisha**, maiatzaren 11n 2 urte egin zenituelako. Aita, ama, amama eta vovó vovó-ren partez.



• Zorionak, **txapeldun**, maiatzaren 17an 6 urte egin zenituelako. Familiakoen, eta bereziki, Ainararen partez.



• Zorionak, **Elsa**, atzo 6 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **Pakita**, maiatzaren 23an 84 urte egingo dituzulako. Lagunen partez, ondo pasa!



• 'Negua joan da eta' iritsi da udaberria, eta gure loriaren urtebetetzia. Zorionak eta muxu potolo bat, **Irenel** Bihar 12 urte handi!



• Zorionak, **Leire**, astelehenean 5 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Ane**, zure bosgarren urtebetetzean. Ondo pasa igandean, eta muxu handi bat denon partez.




• Zorionak, **Oier**, asteazkenean 11 urte egin zenituelako. Oso ondo pasatu genuen! Muxuak! Etxekoak.



• Zorionak, **Enara**, zure 18. urtebetetzean. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Lander**, eta muxu handi bat zure bederatzigarren urtebetetzean. Gurasoen eta lbonen partez.



• Zorionak, **Unax**, 8 urte bete dituzulako. Oso ondo pasatu genuen zure egunean! Ziur gaur ere bikain ibiliko zarela! Muxu bat.



• Zorionak, **Asier**, maiatzaren 17an 3 urte egin zenituelako. Aita-txo, amatxo eta Unai-ren partez.



• Zorionak, **Elaia**, bihar 3 urte beteko dituzulako. Ondo pasa eguna!



• Zorionak, **Sare**, asteazkenean 6 urte egingo dituzulako. Ondo ondo pasa, eta patxo handi bat denon partez.



• Zorionak, **Yuri**, astelehenean 8 urte bete zenituelako. Familiakoen, eta bereziki, Idoia-ren partez.



• Zorionak, familiako guztien partez. Berezik, Miriam, Ainara eta Unai-ren partez.



• Zorionak, **Naroa**, gaur 7 urte egin dituzulako. Jarraitu zaren bezalakoa izaten. Etxekoen eta lagun guztien partez, muxu bat.



• Zorionak, **Marcos Miguel eta Mikel**, aittitta eta osaba-izeben partez.



• Zorionak, **Josu**, atzo 4 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki, Auraren partez.



• Zorionak, **aittitta eta amama!** 54 urte, gaur, elkar ezagutu zenuela, eta datorren urtean, berri-z, urrezko ezteiak, maiatzaren 11n. Zuek merezi bezala ospatuko dugu. Nahia.



• Zorionak, **Xabat eta Maialen**, zuen lehenengo urtebetetzean. Muxu handi bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **Adur eta Ane**, gaur 3 urte egin dituzulako. Etxeko denon partez.



• Zu bai, zu, berezia eta garrantzitsua! Akorduan zaitugu! Mokadutxoaren zain gaude. Segi fin!



• Zorionak, **Intza eta Peru**, zuen 8. eta 5. urtebetetzean. Bereziki, Elene eta Luciarene partez.



• Zorionak, **bikotel** Oso ondo pasa zuen egunean! Koadrilakoen partez.

18 barixakua

Musika

18:30 Kale kantariak

Kale kantariak entsegua egingo dute, Kultur Etxeko sotoan.

Hitzaldia

19:00 ADNa aldatzeko erremintak

Thutam Guillamot kosmosozitologoak eskainiko du hitzaldia, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

19 zapatua

Kirola

11:00 Saskibaloitxapelketa

Ikastolak antolatuta, 3x3 saskibaloitxapelketa. Kalegoen plazan.

Politika

13:00 Goazen plazara!

Herrira ekimenak antolatuta, euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko ekitaldia. Kalebarren plazan.

20 domeka

Kirola

9:00 Mendi irteera

Ikastolako gurasoek antolatuta, Aloña mendira joango dira.

11:30 Atxutxiatxintxika

Atxutxiamaikak antolatuta, HH2tik LH2ra arteko umeentzako krosa. Kalegoen plazan.

Erakustaldia

12:00 Lambretta motoak

Zubibaik antolatuta, Lambretta motoen erakustaldia. Aitzolako frontoian.

22 martitzena

Bertsolaritza

18:30 Bertso jaialdia

Ikastolako eta Herri Eskolako umeen ikasturte amaierako jaialdia. Herriko Antzokian.

23 eguztina

Bertsolaritza

18:30 Bertso jaialdia

Ikastolako eta Herri Eskolako umeen ikasturte amaierako jaialdia. Herriko Antzokian.

25 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka

Elgoibarko Izarrak antolatuta, 2tik 6 urtera arteko eta haien gurasoentzako egitasmoa.

OKINDEGIA

20 domeka EIZAGIRRE

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

Gauetz

22:00 - 9:00

18	Ibañez	Garitaonandia
19	Garitaonandia	Garitaonandia
20	Garitaonandia	Garitaonandia
21	Etxeberria	Etxeberria
22	Fernandez	Barrenetxea
23	Yudego	Yudego
24	Zabaleta	Etxeberria

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

Igandea, hilak 20, karting irteerarako izena emateko azken eguna!
Oraindik badago lekua, animatu!



Astelehenean, 17:00etan, eskulanak Kalegoen plazan! 5-12 urte arteko haur guztientzat. Eguraldi txarra eginez gero, Madalako karpan.

ZINEA

«Grupo 7»

18, barixakua: 22:15
19, zapatua: 19:00/22:15
20, domeka: 19:00
21, astelehena: 21:30

«Lotte 2»

20, domeka: 16:30

«Grupo 7» Zuz.: Alberto Rodríguez.

Espainia. Iraupena: 95 min. Generoa: Akziozkoa, drama. Aktoreak: Antonio de la Torre, Mario Casas, Inma Cuesta, José Manuel Poga. Zazpi laguneko gizon talde baten gertakariak dira filmaren ardatza. Gezurrak, leialtasun falta, atxiloketak eta akziozko beste hainbat ekintza biziko dituzte zazpi gizon horiek, eta arazoak konpontzeko orduan ez diote etikari erreparatuko. Beraien lana egiteko orduan denak balio du.



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upalaz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



TXIKI EGUNEKO BAZKARIA

ELGOIBARKO IZARRAREKIN

Bazatoz bazkaltzera, txarangaren ikuskizuna amaitu ondoren
17:00etan, Sigmako aparkalekuan.
Animatu, primeran pasako dugu-eta!

MENUA:

- Lehengo platera: arroz-entsalada
- Bigarren platera: okela gisatua patatekin edo barazkiez betetako berenjena gainerreak
- Postrea: Gazta-tarta
- Edariak: Sagardoa, ardo beltza eta ura

Izena ematea Elgoibarko Izarran edo Internet bidez egin behar da (www.elgoibarkoizarra.com)
(Izena emateko azken eguna uztailaren 13a.
Izena ematean aukeratu beharko da bigarren platera)

19 €

17 €

Elgoibarko
Izarrako
bazkideak



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA